


GETARIAKO HISTORIAZ LOTURAK SORTZEN

KANPOTARREI HARTZEKO ETA BERTAKOEI ERANTZUTEKO IRISGARRITASUN ELEMENTUA



Master Amaierako Lana 18/19 - Zuzendaria: Jon Begiristain Mitxelena - Ikaslea: Garazi Aranguren Alberdi

- AURKIBIDEA -


I. LIBURUA: PROIEKTUAREN GARAPENA

Laburpena	
Azalpena	03
Proiektua	
Kokapena	05
Textuingurua	06
Eraikinak	07
Zarautz Jauregia	
Tintaleku Lonja	
Analisia	13
Fisikoa	
Historikoa	
Kulturala	
Egungo egoera	17
Interbentzioa	18
Programa	19
Alderdi teknikoak	20
Ikuspegia	21
Hirigintza	
Sarrera	23
Prozedura	24
Eranskinak	25
Arau Partikularrak	
H.H. Plan Berezia	
Paisai Akzio Plana	
Aurkibidea	33
Planoak	
Kokapena	34
Gaur egun	37
Proiektua	41

II. LIBURUA: GARAPEN TEKNIKOA

Egitura	
Sarrera	64
Diseinua	65
Zama egoera	66
Kalkulua	67
Instalakuntzak	
Sarrera	75
Eskemak	76
Planoak	82
Memoriak	91
Eraikuntza	
Sarrera	95
EKT betetzea	96
Planoak	107

- KOKAPENA -
- GIPUZKOA - GETARIA - BIHOTZA -



GETARIA Kantauri itsasoaren itsaslabarrean dago, Gipuzkoan. Ekialdera Zarautz aurkitzen da, hegoaldera Oikia eta Aizarnazabal eta mendebaldera Zumaia. Muga natural nagusia itsasoa du.

“Zeruaren eta itsasoaren artean, Garate mendiaren magalean patxadatsu dago Getaria denboraren joan-etorrian, muturrean arratoi ospetsua duela, lehen San Anton uhartea zena eta gizakien lanek lurmutur bihurtu zutena.”

Herriaren izena “Cetaria” hitz latindarretik dator, “Arrain Kontserbak egiteko Asentamendua” esan nahi duena. 1209an eman zitzaion hiribildu titulua, baina aztarna arkeologikoei esker badakigu gizakiaren presentzia etengabea izan dela bertan historiaurretik gaur egun arte.

Bere herrigune historikoa Erdi Arokoen itsurakoa da. Sei kalek osatzen dute, trabeskako kalek gurutzatuta. Etxebizitzak 3-4 solairukoak dira. Arrantzaleen ikuspuntutik, Getaria, itsasoari muga ezartzen dion itsaslabarra da (itsasotik begiratzen baitute beraiek).

XI. mende inguruan hasi ziren bertako biztanleak itsasoratzen, eta San Anton irlak eskeintzen zuen babes naturalari esker, babes-portu garrantzitsua bihurtu zen berehala.

Bale arrantzak eta itsas-espeditzioek itsas-gizon trebeak eman zituzten. Hauen artean ezagunena Juan Sebastian Elkano dugu, bere tripulazioaz Nao Victoria itsasontzian 1519-1522 artean munduari bira osoa eman zion lehena.


Getariaren garapena mariñel honen desenbarkuaren urteurrenekin lotua eman da, bereziki portuarena, baina azken hau gaur egun egoera tamalgarrian aurkitzen da. **Portuak**, Getariaren profila erabat eraldatzeaz gain, **herriarekin oso harreman gutxi** erakusten du, plano guztiz ezberdin batean geldituz.

Bestalde, bere garrantzi historikoak, herri-arrantzalearen xarmak, eszenatoki famatuak, bertan jaiotako pertsonaia garrantzitsuek, gastronomiak, txakolinak eta kaleetan sortzen den giro herrikoiak bisitari asko erakartzen ditu munduko puntu guztietatik.

Aurten emango den **“Mundubira 500”** programa dela eta, Elkanoren izena eta herria ezagutarazteko **finantziazioaren** barruan, **herriaren eta portuaren egoera hobetzeko aukera** egongo da. Proiektua burutzeko baliatu daiteke.

Master Amaierako Proiektuan, **Getariako Hirigune Historikoaren eta portuaren arteko muga dauden “Zarautz Jauregia” eta “Tintaleku” eraikinak hartuz, bi plano paralelo hauen arteko (herria eta portua) irisgarritasun elementu bat garatuko da, herritarrei erantzungo diona, eta kanpotik datorrenari bertako giroan txertatzen lagunduko diona.**

- TEXTUINGURUA -
- HIRIGUNE HISTORIKO ETA PORTUAREN ARTEKO MUGAN -



- ERAIKINAK -
- ZARAUTZ JAUREGIA - TINTALEKU LONJA -

Interbentzioa Getariako Hirigune Historikoaren eta itsas-portuaren arteko mugan dauden, hau da, **hutsik** eta **kokapen estrategikoan** dauden **“Tintaleku lonja”** eta **“Zarautz Jauregia”** eraikinetan ekin, eta hemendik, bere inguru gertuan eragiten du, herriaren mutur ahaztu hau egokituz.

ZARAUTZ JAUREGIA

(HIRIBILDUAREN ALTUERAN)

Erdi Aroko jauregi bat da, Kale Nagusiaren eta Aldamar kalearen artean kokatua. Getariako Hirigune Historikoaren erdian txertatzen da, San Salvador elizaren alboan. **Kultura-ondare moduan kalifikatua** dago eta **Getariako monumentu multzoaren parte** da.

Bi konpartimendutan banatzen da: **Zarautz Jauregia** (handiena, aztarnategia biltzen duena eta elizaren arbotante bat sartzen zaiona) eta **Ochoa Ibañez de Olano jauregia** (estua eta luzea dena, bertan hormigoi armatuzko solairuak eginak daude). Bere harrizko hormek **Kale Nagusi aldetik 15m-ko altuera** dute, eta **11m Aldamar kaletik**; zabalerak, **oinarriko 1,25m-en eta gailurreko 0,70m-en artean** dabilta.

2004-2007 arteko indusketa lanetan **garrantzi handiko aztarnak aurkitu ziren**, baina ez hauei **probetxu ateratzeko modua**. Gaur egun **ia-abandonatua dago**. Egitura errefortzatzeko egindako lanei esker hormak tente mantentzen dira, baina aztarnategia urez eta zaborrez betetzen da.

TINTALEKU LONJAK


(PORTUAREN ALTUERAN)

1969an Jose Maria de Yturriaga Dou Arkitekto doktoreak “Elkano arrantzale kofradia”-ren enkargupean altxatutako **arrantza elementuentzako biltegi-eraikin bat** da. **Kokapen oso berezian** aurkitzen da: Errepide nazionala portuaz konektatzen duen bidearen eta Aldamar Kalearen arteko kota ezberdintasuna **3 solairu independenterekin** betez. Itsaslabarraren eta portutik Artzapera igotzeko arrapalaren artean mehartua dago. Estalkiko **terrazatik herriko bista hoberenak** biltzen dira (Portu guztira, San Anton irlara eta Zarautzera begira dagoen panoramika hartzen du).

Egitura **Hormigoi Armatuzkoa** da, 40x40 cm-ko zutabeekin eta ohiko norabide bakarreko forjatu batekin eutsia. Sabaian **bi norabideetan kantuzko habeak** ikusi ahal dira, nagusian 25x57 cm-koak eta bestean 25x47 cm-koak. Fatxadetako irekidura horizontalak **egurrezko zelosiez itxiak** daude, bertan bildutako arrantza elementu bustien aireztapena bermatzeko. Itxura gogorra badu ere, ez du inongo momentuan garrantzia hartzen.

Eraikinaren **ingurugiroan aldaketa garrantzitsuak** eman dira. Portuaren zabalkuntza egin eta errepidea sartu zutenean, honen traza zabala kanporagotik marraztu zen, zentzurik gabeko **txoko zigortu batean** bezala utziz Tintaleku eta arrapala azpiko tunela.

- ZARAUTZ JAUREGIA -



Alzado sur

Alzado este

Ekialdeko horma kanpotik



Iparraldeko horma kanpotik



Mendebaldeko horma kanpotik




Ekialdeko horma barrutik




Iparraldeko horma barrutik




Mendebaldeko horma barrutik



Arbotantea




Hegoaldeko horma barrutik



Mehelina hegoalderantz




Mehelina iparralderantz



Estudio histórico-arqueológico del Palacio Zarautz Jauregia (Getaria, Gipuzkoa)
Diciembre 2006. Planos de las fases constructivas/ Unidades estratigráficas
Grupo de Investigación en Arqueología de la Arquitectura. UPV-EHU

- ZARAUTZ JAUREGIA -




1980

Behe solairua Kale Nagusitik Aldamar kalera zeharkatzeko ibiltzen zen.



1997

Elizaren obra egin bitartean, hormen kontsolidazio lanak egin ziren.




2018

Ikerketen ondoren, emaitzak balioan jartzeko ekimenak egin ziren.




Barruan, aztarna historikoak ikus daitezke, modu oso probisional batean utziak, eta askotan zaborrez eta euri-urez beteak.


- TINTALEKU LONJA -




0. Solairua




1. Solairua




2. Solairua




3. Solairua




Zeharkako ebaketa





Alboko altxaera



Luzetarako ebaketa



Altxaera nagusia



Almacenes para la cofradia de pescadores (Guetaria)
Junio 1969. Febrero 1973. Planos del proyecto
Doctor Arquitecto Jose M. de Yturriaga Dou

- TINTALEKU LONJA -



- TINTALEKU LONJA -



- ANALISI ARDATZAK -

Proiektuaz ekin aurretik, textuingurua ondo ezagutzeko **hiru analisi ardatz** landu dira: **KULTURALA, HISTORIKOA** eta **FISIKOA**. Jarraian gai hauetako bakoitzaren laburpen bat egin eta **proiektuaz lotura duten ezaugarri eta gertakari nagusiak** aipatuko dira.

- ANALISI FISIKOA -

Analisi fisikoan herriaren **topografia naturala, gizakiaren belaunaldi ezberdinen esku-hartzeaz sortutako hiri-ehuna eta honek gaur egungo beharrei ematen dion erantzuna** aztertu dira. Orokorrean begiratuta, Getaria, elkarren alboan jarritako zati ezberdinetan banatzen da.

IRLA

Itsasoaren aldetik hasita San Anton irla dugu, gaur egun parke natural bihurtua eta aisirako espazio bezala ibilia.

PORTUA

Honi itsatsita Portua dago, urteen poderioz handitzen joan dena eta eraikin kolekziora pieza berriak gehitu zaizkiona. Bertako eskala erabat industriala da, barkuei eta kamioiei zuzendutako kale eta eraikiez osatua.

HIRIBILDUA

Jarraian baina beste altuera batean hiribildua dago, hego-ipar ardatzean luzea eta maldan behera doana, eta eki-mende zentzuan estua eta "U" formakoa dena. Osatzen duten eraikinak 3-4 solairuko lote gotikoak dira, eta beraien fatxada nagusiak 4 kaleei begira daude. Kale hauek elkarren artean konektatzeko zeharkako kale estuak kokatzen dira tarteka. Hemengo eskala erabat gizatiarra da. Kaleak estuak izatean, adokinez estaliak egotean eta oinezkoiei bideratzean sentsazio eroso eta erakargarria ematen dute.

ZABALGUNEA

Harresia zegoen tokian udaletxea, merkaturia, frontoia eta errepide nazionala ikusten dira gaur egun. Honen ondoren, hau adarkatu eta mendian gora igotzen diren errepideen alboetan, azken 100 urteetan eraiki diren etxebizitza blokeak ikusten ditugu, tipologia ezberdinetakoak. Hiribilduari gertuen dauden espazioetatik hasi eta hurrunen daudenetara irakurtzen joaten bagara, 50-80. hamarkadetako hazkunde buruaskitik hasi, pixkanakako hazkunde zentzudunagora igaro eta azkenik azken urteetako babes ofizialeko etxebizitzetara iristen gara, hauei lotuak doazen aldian aldiko ekipamendu, espazio publiko eta lurpeko aparkalekuak topatuz.

IRISGARRITASUNA

Oinezkoiei erantzunari dagokionez, errepide asko egon arren, malda handiak direla eta oinezkoen ibilbideak laburtzeko eginiko interbentzio asko aurki daitezke sakabanatuak. Konexio gutxien hiribildu altueraren eta portu altueraren artean ematen dira.

Irisgarritasunari dagokionez, herriaren izaera maldatsua dela eta zaila da egungo legearen eskakizunak betetzen dituzten bideak topatzea, baina hauen aldeko apustua ikus daiteke herri berria eta zaharra lotzen dituen arteria nagusian edo parkeetan.

- ANALISI HISTORIKOA -

Analisi historikoan **Getariako hirian garai ezberdinetan emandako gertakariak** aztertu dira, gaur egungo herria izaten amaitzeko.

ANTZINAROA

Antzinarotik, irlaren babesari esker, Getaria bizitzeko leku egokia izan da. **K.a. I. m.** erromatarrek asentamendu bat kokatu zuten kabotajerako.

ERDI AROA

V. m. eraikinen tipologia aldatu zen, oin obaleko eraikin txikietara igaroz. **X. m.** lehenengo elizaxoa eta errekaen desbideraketa obrak egin ziren. **XII. m.** lehen hiribilduak sortu. Kosta itsas merkataritzagatik garrantzitsua. **XIII. m.** Gipuzkoa Gaztelako erresumaren parte. 1209an Getaria hiribildu. **XIV. m.** Ubidea estali, Kale Nagusia bihurtu. 1345 katedrala eraikitzen hasi.

ARO MODERNOA

XV. m. 1420an Salbatore Deuna-ren eraikuntza lanak amaitu ziren. **XVI. m.** 1519/09/20-1522/09/06 Juan Sebastian Elkanoren mundubira. 1540an portu zaharra amaitu, 1575ean eliza honekin lotzen zuen malekoia. 1597/01/05ean sutea, herria ahulduta utzi eta dokumentu asko erre. **XVII. m.** 1635-1639 harresia berreraiki. 1638an frantsesek herria erre. **XVIII. m.** hainbat konponketa lan, denboraleek atzera suntsitu.

ARO GARAIKIDEA

XIX. m. 1808an, Napoleonen garai inperiallean, Getaria frantsesek hartua, San Anton irlan zainketa postu iraunkorrak. 1813an frantsesak erretiratzean minak lehertu portuan. 1814an gotorlekuko harresiak bota eta artilleria Donostiara eraman. 1835ean Herrietako Errebala erre Karlistak bertatik ez sartzeko. 1836an Karlistak elizaraino iritsi, bertan babestuak aterarazi eta hiribildua erre. 1847an kaia eta portua ia erabat berreraiki ziren. 1856an uharteak funtzio militarrik izateari utzi eta laborantzarako deforestatu. 1885/02/22an Alfontso XII.aren aginduz harresiak eraitsi.

XX. m. Elkanoren mundubiraren 4. mendeurrena ospatuz herria erabat itsuraldatu zen. Hauek dira egin ziren obra nagusienak: Portuko ostatu berria (1917), portu berria (1919), udaletxea (1922), Elkanoren monumentua (1924), N-634 eta portu berria lotzeko errepidea (1932-1935), eskoletako eraikina (1948), kai muturraren desmuntaketa eta arrapalaren eraikitzea (1953), portuaren zabaltzea (1958), San Anton mendiaren birlandatzea (1963), Tintaleku lonja eraikina (1973), Kirol Portu berria (1994), Salbatore Deuna elizaren berritzea (1995) eta Arrain lonja berria (1999).

XXI. m. 2010ean Cristobal Balenziagaren museoa inauguratu zen. 2014an Anbulategia inauguratu zen. Irisgarritasuna hobetzeko hainbat lan: parkeen egokitzapenak, eskailerak, eskailera mekanikoak, igogailuak ...

- ANALISI KULTURALA -

Analisi kulturean **herriaren ezaugarri aipagarriak, elementu famatuak eta bertako biztanleen datuak** emango dira.

HERRIA

Biztanleria gaur egun 2.818 biztanle ditu (2017). Hauen %50,77a gizonak eta %49,23a emakumeak delarik. Hauetatik %85a euskalduna da. **Dentsitatea** oso altua da, 257 biztanle/m²-ko. Izan ere, udalerria osatzen duten lurren %92a landa maldatsua da, eta beraz, herritar ia guztiak errepide nazionalaren bi alboetan bizi dira. **Etxebizitza** eraikin ia guztiak 3 edo 4 solairuko blokeak dira, eraikuntza berri nahiz zaharrekoak.

LANBIDEA

Arrantza izan da Getariako jarduera bereizgarria, eskualdeko portu garrantzitsuen izan baita urteetan. Baina kostaldeko beste herrietan bezala, lehen sektorearen garrantzia murrizten joan da azken hamarkadetan. **Nekazaritza** eta zehazki txakolinari lotutako mahastiek Getariako landa maldatsuak ia osorik estaltzen ditu, "jatorri deitura"-ren zergatia azalduz. **Industria** ere bertan da, bai portuan itsasoari lotuta, eta baita inguruko lurretan txakolinari edo bestelako produkzioei lotuta. **Zerbitzuak** dira gaur egun jarduera ekonomiko nagusia, herriko produktu gordinaren %47a dagokiolarik, eta industriari bestalde %27.

HEZKUNTZA

Herriko eskolan **haur-hezkuntzatik lehen-hezkuntzara** arteko zerbitzua eskaintzen da. Hemendik aurrera haurrak alboko herrietara joaten dira derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergo edo lanbide-heziketa izateko.


AISIALDIA

Herriaren tamaina murriztua kontuan izanda, eskaintza zabala dago denbora libre bertan igaro nahi duenarentzat: Kiroldegia, hondartzak, parkeak, museoak, gastronomia...


TURISMOA

Getariak **bisitari asko erakartzen ditu** bere historiaren garrantzia, herri-arrantzalearen xarma, eszenatoki famatuak, gastronomia eta txakolina, eta kaleetan sortzen den giro herrikoa dela eta. **Euskal Herri mailan** bertatik ordu t'erdia bizi diren bixitariak gerturatu dira, bereziki asteburuetan, egun pasak egitera. **Nazio mailan**, bixitari ohikoenak katalanak, madrildarrak eta andaluziarrak dira, uda pasatzera etortzen direnak. **Mundu mailan**, frantsesak, ingelesak, orientalak eta amerikarrak dira gehienak, urte guztian zehar egun batzuk pasatzeko gelditzen direlarik.


- ANALISI FISIKOA -




- ANALISI HISTORIKOA -




II. MENDEA




V. MENDEA




X. MENDEA




XIV. MENDEA




XVI. MENDEA




1650




1750




1810





1880




1940




2018



- ANALISI KULTURALA -



- EGUNGO EGOERA -



Nire interbentzioa **Getarian, hirigunearen eta portuaren arteko mugan** dauden **“Tintaleku lonja”** (portuan) eta **“Zarautz Jauregia”** (hiribilduan) eraikinetan sartu, eta hauen **inguru gertuan** zabaltzen da.

Hautatutako preexistentziak aztertu ondoren kontuan izateko hurrengo **ezaugarriak** ikusi zaizkie:

ZARAUTZ JAUREGIA (S. XV)

- Multzo gotikoko parte
- Harearrizko harlandua
- Bi konpartimendu
- Aztarna historikoak
- Elizaren arbotantea
- Solairuak definituak

TINTALEKU LONJA (1969)

- Jose Maria de Yturriaga Dou
- HA habeak bi norabidetan
- Solairu independenteak
- Bere ingurunean mehartua
- Ikuspegi bikainak bertatik
- Egurrezko zelosia itxitura

Proiektuaren ideia nagusia **IRISGARRITASUN ELEMENTU** bat sortzea da, irisgarritasuna bere aspektu fisiko, kultural eta historikoan ulertuta. Hiru analisi ardatz hauei jarraiki, honakoa proposatzen da:

FISIKOKI lotzeko,


Portuaren altueratik Kale Nagusiraino iristen den konexio berri bat sortzen da. Honetarako, igogailu publiko bat, kanpo eskailera nukleo bat, plataforma berri bat, Aldamar kalea azpitik zeharkatzen duen tunel bat, eta aztarnategia perimetrotik inguratzen dituen pasarela bat gehitzen dira. Aktuazio hau **Bista Ona parketik Katraponaraino egin nahi den pasealeku berriaz lotzen da**, zirkulazio-korapiloari indar gehiago emanez.

KULTURALKI lotzeko,


Tintaleku lonja eraikinean itsas-gizonen etxea txertatu da. Getariaren identitate den herriaren eta itsasoren arteko harreman estua bilatzean, honekin lotutako azpiegituren egoera kaxkarra ikusi da. Interbentzioaz, normalean portuetan isolatuta gelditzen diren marinel kanpotarrei herriaren bihotzeraino ongiatorria emateaz gain, ertz batetik azpiegiturak hobetzeko abiapuntua jartzen da.

HISTORIKOKI lotzeko,

Zarautz jauregian dokumentazio zentro bat txertatu da. Artxiboan itsasoaz lotutako informazioa biltzea proposatzen da, baina bere formak askatasuna eskeintzen du beste edozein erabilera jasotzeko. Eraikineren garrantzi historikoa errespetatzeko eta nabarmentzeko, barnean sartutako elementua hormetatik urrundu da, aztarna horizontalak zein bertikalak agerian utziz jakinmina duenaren gozamenerako.



- INTERBENTZIOA -



Aktuazio elementu bakoitzean honela jokatu da:

LOTURA ELEMENTUari dagokionez, Hasteko, Malkorbe hodartatik Kale Nagusiaren altueraraino igotzen gaituen **komunikazio bertikalen multzo bat** proiektatzen da. Igogailua bigarren plano batean gelditzen da, itsaslabarra eta tintaleku diren bi masa handien artean hutsune bat irekiz. Eskailerak honen aurrean egongo dira, plano batetik bestera jauzika. Terrazako korapiloa, **Bista Ona parkea Katraponarekin konektatuko duen pasarelara kontuan hartuz** diseinatuko da.

Jarraian, **Tintalekuren alboan**, tabernari estalkia ematen dion eta igogailutik Zarautz jauregira doan **plataforma bat** dago. **Elementu arina** emateko, akabera fineko altzairuzko eta hormigoizko egitura mixtoa ibiliko da.


Azkenik, **Zarautz Jauregiaren aztarnategia perimetrotik inguratzen duen ibilbide bat** dago. Bertatik ikusgai izango dira harrizko barne fatxadak, elizaren arbotantea eta lurreko indusketak. Ibilbide hau egitura metaliko bidez hormetan eutsiko da, **presentzia minimoarekin** aztarnei garrantzi emateko.

TINTALEKU LONJAari dagokionez, **solairu bakoitzaren kalearekiko loturaren arabera antolatuko da programa**. Behe solairuan jatetxea, aldagelak eta hostaleko harrera bilduko dira. Hurrengo bi solairuetan logelak, bainugelak eta estantziak sartuko dira. Estalkian, tabernaren inguruan jendea biltzeko espazio irekia egokituko da.

Barne espazioei ahal den etekin guztia ateratzeko, norabide nagusiko habearte zabaletan logelak eta estuetan pasiloak jasoko dira. Bi pasilo lerroak, egungo eraikinari paralelo eraikitako **komunikazio banda berri batekin** lotuko dira, igogailua eta eskailerak bilduko dituen. Logela guztiak bizigarri izateko, zeharkako atzetik hasita bigarren habeartean **patioak irekiko dira**.

ZARAUTZ JAUREGIAari dagokionez, eraikineri **sarrera** kale nagusiari lotutako Olaotarren **konpartimendu estetik**, emango da. **Bertan zerbitzu elementuak** jasoko dira: komunikazio bertikalak, gela hezeak, biltegiak eta instalakuntza gela. Mehelineko hutsarteetatik **Zarautzarren konpartimendura** zabalera igaroko gara, **aktibitateak jasoko dituzten estantziak** dauden aldera.

Zarautzarren konpartimenduko garrantzi historikoko elementuei erantzun emateko, **jauregiaren zorutik eta hormetatik aldentzen den elementu bat** proiektatzen da. Bizkarroi hau **bere baitan zurruna** izango da, eta **puntualki hormetara lotzean, bere burua eusteaz gain hormen zurruntasunean lagunduko du**. Elementuaren eta jatorrizko perimetroaren artean utzitako distantziaz aztarna guztiak agerian uztea bilatu da.




- PROGRAMA -

- ZARAUTZ JAUREGIA -
598,49 m²


P4 Zarautz Jauregia

Z.A4._ Areto irekia	65,75 m ²
Z.T4._ Terraza	66,28 m ²
Z.M4._ Makina gela	12,29 m ²
Z.Z4._ Zirkulazioa	6,56 m ²




P3 Zarautz Jauregia

Z.A3._ Liburutegia	65,75 m ²
Z.B3._ Gela pribatua	7,65 m ²
Z.K3._ Komuna	3,15 m ²
Z.Z3._ Zirkulazioa	15,51 m ²




P2 Zarautz Jauregia

Z.A2._ Bulegoa	65,75 m ²
Z.B2._ Biltegia	17,32 m ²
Z.K2._ Komuna	3,15 m ²
Z.Z2._ Zirkulazioa	10,02 m ²




P1 Zarautz Jauregia

Z.A1._ Bulegoa	44,55 m ²
Z.B1._ Biltegia	17,32 m ²
Z.K1._ Komuna	3,15 m ²
Z.Z1._ Zirkulazioa	10,02 m ²



P0 Zarautz Jauregia


Z.Z0._ Zirkulazioa	31,35 m ²
P.P._ Pasarela publikoa	66,93 m ²
P.A._ Aztarna arkeologikoak	85,99 m ²



- TINTALEKU ERAIKINA -
1.920,32 m²


P3 Tintaleku Eraikina

T.TT3._ Taberna-taberna	19,88 m ²
T.TB3._ Taberna-biltegia	12,14 m ²
T.MG3._ Makina gela	16,93 m ²
T.Z3._ Zirkulazioa	17,18 m ²
T.T3._ Terraza	424,03 m ²



P2 Tintaleku Eraikina

T.HKK2._ Hostala-komuna	21,59 m ²
T.HLT2._ Hostala-logela txikiak (x6)	66,84 m ²
T.HLE2._ Hostala-logela ertainak (x4)	72,56 m ²
T.HKP2._ Hostala-komun pribatuak (x4)	15,32 m ²
T.HLH2._ Hostala-logela handiak (x2)	45,20 m ²
T.Z2._ Zirkulazioa	141,31 m ²
T.T2._ Terraza	52,12 m ²




P1 Tintaleku Eraikina

T.HEK1._ Hostala-egongela	90,40 m ²
T.HKK1._ Hostala-komuna	21,59 m ²
T.HLT1._ Hostala-logela txikiak (x6)	66,84 m ²
T.HLE1._ Hostala-logela ertainak (x4)	72,56 m ²
T.HKP1._ Hostala-komun pribatuak (x4)	15,32 m ²
T.Z1._ Zirkulazioa	141,31 m ²
T.T1._ Terraza	52,12 m ²



P0 Tintaleku Eraikina

T.HH0._ Hostala-harrera	51,81 m ²
T.HK0._ Hostala-komuna	3,90 m ²
T.HB0._ Hostala-biltegia	12,50 m ²
T.AD0._ Aldagelak-dutxak (x2)	57,32 m ²
T.AK0._ Aldagelak-Komunak (x2)	28,48 m ²
T.JJ0._ Jatetxea-jangela	174,93 m ²
T.JS0._ Jatetxea-sukaldea	40,94 m ²
T.JK0._ Jatetxea-komuna	21,59 m ²
T.JB0._ Jatetxea-biltegia	38,26 m ²
T.Z0._ Zirkulazioa	125,65 m ²



- ALDERDI TEKNIKOAK -

Proiektuaren alderdi teknikoa **hiru zatitan** banatzen da: **EGITURA, INSTALAKUNTZAK** eta **ERAIKUNTZA**. Aurrerago gai bakoitzari bere sekzioa eskaintzen zaiola eta proiektuko atal batzuetaz sakon hitz egiten dela kontuan izanik, orri honetan sarrera orokor bat soilik egin eta **proiektu osoaren alderdi aipagarrienak** izendatuko dira, **ideia orokor bat** izateko.

- EGITURA -

Proiektua hiru ataletan banatu daiteke. Atal hauetako bakoitzaren esku-hartzean hurrengo irizpideak eta egitura-sistemak ibili dira:

1.- LOTURA ELEMENTUA.

Elementu honen presentzia ahalik eta arinena izatea bilatu da.

Eskailera hegan doan lauza baten modura tratatu da.

Igogailua tintalekuren alboan biltzen da, **lurrean sartua**, ezkutatua.

Taberna gaineko **pasarela** ahalik eta finena egiten da, **zutabe finez eutsia**.

Aldamar **kalearekiko lotura kurbatua** da elementu leun itxura hartuz.

Kalepetik irekitzen den **tunela gordina** utziko da, zorua soilik landuz.

Aztarnategiako **bidea fina eta presentzia minimokoa** egin da.

2.- TINTALEKU LONJA.

Interbentzio hau hormigoizko armatuzko eraikin existente batean egindako **birgaitzea** da. Eraikinak **hiru aurpegi lurpean** (hauetako bat erdiraino soilik) eta **laugarrena hondartzara begira** ditu. Sakonera handiko hiru solairutan banatzen da, estalkian plaza bat bilduz. Bere egitura, **zutabe sare** batez eta **kantuzko habeez** osatzen da.

Erabilera berriei erantzuteko, **komunikazio nukleo pribatu bat** sortzen da eraikinaren atzeko aldean. Hau txertatzeko **pilote horma** bat egingo da behar den tokian, ondoren eraikinaren eta hormaren arteko zatia **hustu**, eta azkenik **hormigoizko armatuzko forjatuak eta altzairuzko zutabeak** txertatuko dira.

3.- ZARAUTZ JAUREGIA.

Interbentzio hau harrizko horma biluziek bildutako eremuan egindako **birgaitzea** da. Eraikina, mehelin baten bidez banatutako **bi konpartimenduk** osatzen dute: Zarautz familiaren eta Olano familiaren konpartimenduak.

Eraikin honetan erabilera jaso ahal izateko **egitura bat** gehituko zaio, jauregiaren jatorrizko hormetan sostengatuko dena. Olanotarren aldeko egitura **habe biapoiatuetan eutsiko** da. Zarautzarren aldeko egitura, bestalde, hirugarren **solairuaren altuera osoa hartzen duen zertxatik zintzilikatuko** da, modu honetara jauregiaren eremuan sartzen den **elizaren arbotantea saihestuz**. Egitura bi norabideetan planteatzen da hormen egonkortasunaren mesederako.

Egituraren kalkulua egiteko Zarautz Jauregia aukeratu da, konplexutasun interesgarriak aurkituko direlakoan.

- INSTALAKUNTZAK -

Proiektua hiru ataletan banatu daiteke. Atal hauetako bakoitzaren esku-hartzean hurrengo irizpideak eta instalakuntza-sistemak ibili dira:

1.- LOTURA ELEMENTUA.

Elementu hau erabat publikoa eta kanpo espazioa izanik, bertan **Irisgarritasun, saneamendu** eta **argiztapen** eskakizunak bete beharko dira.

Interbentzio guztia, **gurpildun-aulkian dagoenarentzat erabat irisgarria** egin da, hondartza altueratik kale-nagusiraino lotura berri bat sortuz. Eurirurak **zoruaren geometria bidez** bideratu, puntu jakinetan jaso eta hodi-sareen bidez saneamendu **sare orokorrera** bideratuko dira. Espazio guztiak **egoki argizatuko dira puntu ilunak saihestuz**.

2.- TINTALEKU LONJA.

Interbentzio honetan, erabilera berriak direla eta, **Irisgarritasun, Sute-segurtasun, Itxituren estudio termiko, Klimatizazio, Ur hornidura, Ur bero sanitario, Saneamendu, Hondakinen bilketa, Gas erregai, Elektrizitate, Argiztapen** eta **Akustika** eskakizunak bete beharko dira.

Komunikazio **nukleo berriaren** bidez irisgarritasuna bermatzen da. Solairuen **bi muturretan irteerak** daude istripu kasuan erraz ebakutzeko. **Itxiturek konfort egoera lortzeko ezaugarriak** betetzen dituzte. Barne estantziatarako **argi eta aire naturala iristeko patioak irekitzen** dira. Klimatizazio-aireztapena UTA bidez egiten da, hodian luzera minimoa bilatuz. **Ura sare orokorretik hartzen** da, eta ondoren **biomasa galdaran berotu**. Saneamendu **sarea bereizia** egiten da. **Sukaldeari askatasuna** emateko Gasa sartzen da. **Elektrizitatea saretik** hartzen da.

3.- ZARAUTZ JAUREGIA.

Interbentzio honetan, erabilera berriak direla eta, **Irisgarritasun, Sute-segurtasun, Itxituren estudio termiko, Klimatizazio, Ur hornidura, Ur bero sanitario, Saneamendu, Hondakinen bilketa, Elektrizitate, Argiztapen** eta **Akustika** eskakizunak bete beharko dira.

Estantzia heze bakarrak komunak izanik, gainontzekoetara aireztapena eta elektrizitatea soilik eraman behar dira. Makina gela azken solairuan egonik, **hodiekin meheline gaintetik pasa eta bertikalean jeisten dira**.

Instalakuntzen kalkulua egiteko Tintaleku aukeratu da, konplexutasun interesgarriak aurkituko direlakoan.

- ERAIKUNTZA -

Proiektua hiru ataletan banatu daiteke. Atal hauetako bakoitzaren esku-hartzean hurrengo irizpideak eta eraikuntza-sistemak ibili dira:

1.- LOTURA ELEMENTUA.

Elementu honen izaera eraikinetatik aldendua izatea bilatu da.

Forjatuak hormigoizkoak egingo dira, **sekzio ahalik eta finena** bilatuz.

Zoruak adokinez edo hormigoiz-inprimatuz estaliko dira, tokiaren arabera.

Bertan zegoen **harresiaren lerroa irudikatuko da harrizko baldosa bidez**.

Barandilak altzairu erdoilezinezkoak izango dira, **barra finez** osatuak.

Tuneleko hormetan lurpeko flych-en textura agerian utziko da.

Aztarnategiko zorua sare metalikozkoa izango da, **gardentasuna** bilatuz.

2.- TINTALEKU LONJA.

Kanpoko itsura jatorrizkoaren antzekoa izan dadin, fatxada aireztatua estaltzen duten plakek **gresite akabera** izango dute. Leihoen **konposizioa** barruko **erabilereara egokitzeko moldatuko** da, baina **egurrezko lamaz estalitako hutsune horizontalak** izaten jarraituko dute, zati batzuetan **plano labaingarriekin** ireki ahal izateko. **Hormigoizko aletak mantendu** eta babestu egingo dira.

Barne espazioetan **distribuzien izaera eta kantuzko egituraren garrantzia nabarmendu** nahi izan da, jatorrian egiten den bezala. Honetarako barne itxiturek habeen azpian eraiki dira, eta **instalakuntzak zoru azpitik edo kanpotik eraman** dira, barne ikuspegiak ez kutsatzeko. **Akaberetan goxotasuna bilatu** da, sabaiak eta hormak igeltsuzkoak egin dira eta zoruak baldosaz edo egur-laminatuz estali dira.


3.- ZARAUTZ JAUREGIA.

Kanpoko itxura egungo jauregi abandonatuarena izaten jarraitzea bilatu da. Honetarako, hormen egoera ona lortzeko esku-hartzeak egin, **gailurrak babesteko egitura-eraikuntza soluzioa** gauzatu eta gainontzekoa bere horretan utziko da.


Barne espazioetan harriaren eta honen estratuen presentzia bilatu da. Forjatuak, zoruak eta sabaiak gauzatu eta hormak bere horretan utziko dira. **Itxiturek beirazkoa** egingo dira, hormen presentzia mantentzeko.

Eraikuntzaren kasuan proiektu osoa landu da, honen xehetasunetan lortu nahi denaren definizio sakona erakusteko.

- IKUSPEGIA -



- HIRIGINTZA -



Honakoak dira aztertu eta kontuan hartu diren arau eta planak:

- **GETARIAKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUAK**
Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2008 urriak 27, 206 Zk.
- **GETARIAKO ALDE ZAHARREKO PLAN BEREZIA**
Abril 2009
- **GETARIAKO PORTUKO PLAN BEREZIA**
En fase de tramitación la evaluación estratégica, Mayo 2018
- **GETARIA HERRIAREN ITSASERTZALDE PAISAIA EKINTZA-PLANA**
Octubre 2015

Getariako hiri antolaketako arauetan honakoa jartzen du:
"Plan Berezia tramitatzen denerako, iradokizun bat egitea; alegia, Tintaleku eraikina eta kofradia zaharra herriaren zerbitzurako hornidurretara bideratzea, Itsas- etxea eraikinarekin neurri batean gertatzen den bezala."

Planoan ikusi ahal den bezala, garai honetan tintalekuren jabetza erdibitua zegoen, eta bere posizio estrategikoa dela eta, ez zen egoera argitu.

Getaria herriaren Itsasertzalde paisaia ekintza-planean honakoa dugu:
"Existen varios edificios en el puerto que, presentan problemas por el abandono... Tintaleku ... es complicado intervenir dado que están sometidas a normativa de puertos, cultura, medio ambiente etc., y existe conflicto en cuanto a la propiedad de las mismas."

Hau da, 7 urtean bi alderdiek eutsi diote eta ez da adostasunik egon.

Eguneratutako **Getariako Hiri Antolamenduaren Plan Orokor** baten faltan, eta honen harira, Tintalekuren jabetza eta egoera legala zehazten duen plan baten faltan, aztertutako arau eta plan zaharrek diotenaren arabera egoera fiktizio bat hartuko da abiapuntu.

Fikzio honetan, Arau Subsidiarioko iradokizuna aurrera eramanez dela eta **Tintaleku herriaren zerbitzurako** gelditu dela suposatuko da, eraikin bezala portuaren ataleko baldintzek eragiten diotelarik.

- BIRGAIKUNTZARAKO PLAN BEREZIAREN EREMUA (H.E. I "HIRIGUNE HISTORIKOA". GETARIAKO UDAL PLANGINTZARAKO AA.SS) - - - - -
- GETARIAKO HIRIGUNE HISTORIKOAREN EREMUA MONUMENTU MULTZO - - - - -
- ARKEOLOGIA GUNEA EREMUA. MONUMENTU MULTZO •••••
- KOSTEN LEGEA APLIKATZEKO BALDINTZAK
- ITSAS BAZTERRA —————
- ITSASO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOAREN MUGAK - - - - -
- ITSASO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOAREN BABESTEKO ZORGUNEA - - - - -

GAUR EGUN



PROPOSAMENA



A.1_ZARAUTZ JAUREGIA

Sailkapena:	Lurzoru hiritar ez finkatua
Kalifikazioa	Alde zaharreko etxeb. --> Ekip. komunitarioa
Esk. bereziak:	- Profila: IV (Kale Nagusia) --> Profil bera, solairu kopurua +1 - Materialak: Zurezko egit. --> Egitura metalikoa - Babesak: Morf. eta fatx. - Kondizioa: B.S. erab. kom.
Araudia:	Getariako Hiri Antolaketako Arauen Textu Bateragina (2008)
Plangintza:	Hiri Antolaketako eta Birgaitze integratuko Plan Berezia, Udalaren ekimenekoa. (2009ko apirilean argitaratua)
Jard. prog.:	Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia
Hir.-gar. irizp.:	*

A.2_TINALEKU ERAIKINA

Sailkapena:	Lurzoru hiritar finkatua
Kalifikazioa	Portu erabilerak
Esk. bereziak:	- Profila: III/II --> Gehitu 258,18m ² /s (261,52m ² /s onartua) - Probetx.: %15 areagotu.
Araudia:	Getariako Hiri Antolaketako Arauen Textu Bateragina (2008)
Plangintza:	Getariako Portua Antolatzeko Plan Berezia, Eusko Jaurlaritzaren ekimenekoa. (ebaluazio estrategikoa izapidetze bidean dago)
Jard. prog.:	Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia
Hir.-gar. irizp.:	*

A.3_TINALEKU GEHIKUNTZA

Sailkapena:	Lurzoru hiritar finkatua
Kalifikazioa	Alde zaharreko espazio pub. --> Lerrokadurak aldatu, tintalekuri esleitu. --> Estalkia erabilerara publikoaz izendatu.
Araudia:	Getariako Hiri Antolaketako Arauen Textu Bateragina (2008)
Plangintza:	Hiri Antolaketako eta Birgaitze integratuko Plan Berezia, Udalaren ekimenekoa. (2009ko apirilean argitaratua)
Jard. prog.:	Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia
Hir.-gar. irizp.:	*

A.4_IGOGAILUA, ESKAILERAK, PASARELA ETA TABERNA

Sailkapena:	Lurzoru hiritar finkatua
Kalifikazioa	Espazio libreen SO parkeak --> Zulatu eta komunikazio elem. sartu
Araudia:	Getariako Hiri Antolaketako Arauen Textu Bateragina (2008)
